

## Eneko Bidegain, bikain cum laude Paueko Unibertsitatean

2012/06/05

Eneko Bidegainek une jakin bat aukeratu zuen bere ikerketa egiteko, Lehen Mundu Gerra, non 6.000 euskaldun hil ziren, eta hedabide bat, *Eskualduna* astekaria (1887-1944), zeina iritsi baitzen Iparraldean astero 7.000 ale banatzera.

Hiru urtean barrena, Eneko Bidegainek **azterketa kualitatiboan** oinarritu du bere ikerketa lana, eta horretarako aztertu egin ditu *Eskualduna* astekariaren editorialak eta gerraren asteroko kronikak, gehienak hiru abadek idatzita (Jean Saint Pierre, Jean Elizalde "Zerbitzari" eta Jules Moulher "Oxobi") eta baita laiko batek ere (Jean Etxepare medikua). Emaizta: ia 800 orrialdeko tesi bat, era bikainean idatzita, epaimahaikide guztien iritziz.

Ikertzaileak ondorioztatu zuen Eskualdunak Frantziaren aldeko jarrera hartu zuela Lehen Mundu Gerran, eta bere helburuetako bat izan zela euskaldunak aurkeztea soldadu eredugarri eta frantsez on moduan. Aberri handia (Frantzia) eta aberri txikia (Euskal Herria) bereizten zituela, eta hiru zutabetan oinarritzen zuela euskal nortasuna: euskalduna, kristaua eta frantsesa.



### Epaimahaia

Bi tesi zuzendari izan ditu Eneko Bidegainek: **Josu Txueka** eta **Xarles Bidegain**. Mahaiburua, berriz, **Javier Diaz Noci** izan zen atzoko ekitaldian. Eta gainerako epaimahaikideak: **Aitor Zuberogoitia**, **Xabier Itzaina**, **Ur Apalategi** eta tesi zuzendariak.

Tesiaren defentsa eginda, epaimahaia hausnarketa egin eta deliberatu zuen doktore gaia aho batez zorientzea, eta oso ongi aipamena eskaini zion, goresmenekin. Alegia, Hegoaldean esango genukeen moduan, **bikain cum laude**. Tesiaren defentsa 30 lagunen aurrean egin zen, tartean ikertzailearen familia eta hainbat lankide nahiz ezagun.

Eguneko argazkiak [Flickr-en](#) ikus daitezke.